

## KARMEL, ALDIZKARI EKLEKTIKOA

1976 hartan KARMELen zuzendaritzako adiskide bat hurbildu zitzaidan, aldizkarirako zerbait idatzi nezan eskatuz. Ez edozertaz, Bilbon egin berria zen «Pensamiento cristiano y diálogo» astealdiari buruz baizik. Egun haietan J.M. Setien apezpikuak emaniko hitzaldiari buruz neure gogoeta kritikoak azaltzeko aukera izan nuen orduan: «Herrien azkapena» izan zen gaia.

Orain berriro etorri zaizkit aldizkariko adiskideak, aldizkariari berari buruz zerbait esan dezadan, 55 urte betetzen dituen honetan. Azkenekoz idatzi nuenetik ia hamar urte igaro dira, baina 55 urte ez dira txantxetakoak aldizkari batentzat: euskal aldizkari batentzat. Neure bihotzeko zorionik handiena zor diet hainbat urtetan, etsi gabe, ixilaldi eta debeku guztien artean eta ondoren, 1931ko asmo hari eutsi dioten lagunei.

Hori, asteko. Baina orain aldizkariari berari buruz eman behar dut neure eritzia. Ez naiz horretarako egokiena, ziur naiz. Hala ere, ezin muzin egin adiskideen eskabideari, eta horra nere gogoetatxoak. Ez naiz ihardungo, jakina, 55 urtetako asmoaren hariaz, ez eta azken amabost urtetotako KARMEL hiruhilabetekariaraz ere. Badakit guzti horren berri zenbaki berezi honetan agertuko dela. Neure eginkizun apala, berriz, azken hiru urteotako KARMEL ikustera eta horren inguruan eritzi xume batzu ematera mugatuko dut.

Eklektizismoa hitza bota dut tituloan. Euskarazko filosofi hiztegian irakurri dudanez, hauxe da eklektizismoa: «Filosofi joera bat, korronte eta doktrina desberdinetatik elementuak aukeratzan dituen». Eta horren ezaugarriak hauek omen dira: «dogmatikoa edo itxia ez izatea, guztien jarrerak kon-tuan hartzea eta sistema erabatekorik ez egitea». Baina filosofiaren goimailak alde batera utsiz, eklektizismoak badu bere lekua literaturan, erlijioan eta edonolako kultur lanetan: aldizkarigintzan ere bai. Funtsean, joera eta eritzi ezberdinak bere baitan onartzen dituenaren joera besterik ez da eklek-

tizismoa.

Aldizkari eklektikoa da KARMEL: Horixe da neure lehen ikusian esan dezakedana. Baina berehala gaineratu nahi dut, ez hasteko eta ez amaitzeko, ez dudala alde txarrera botatzen eklektizismoa. Ez dut oraingoz ez onespenik eta gaitzespenik ematen. Joera bat da eklektizismoa, bere alde txarrak eta onak dituen: aldizkariaren eklektizismoa ere bai.

Azken hiru urteotako zazpi ateraldi ditut aldizkariarenak, horietako hiru bi zenbakizkoak bait dira. Neure eginkizuna oraingo KARMEL aldizkariari buruzko ikuspegia ematea da. 1983tik hasten banaiz, ordutik hona gertatu den aldaketa nabarmentzearen da, hain zuzen. Aipaturiko zazpi ateraldietan lehen hirurak eta azken hirurak bereizi nahi ditut, bereizi ere; tartean dago 1984, 1-2 ateraldia, zenbaki bikoa, aipaturiko bi epeen arteko zubiarena egiten duena.

KARMELen irakurleek ezaguna dute aldizkariaren azken urteotako egitura: Kontu Kontari - Editoriala - Iritziak - Eliza - Kultur-barruan - Letra gozoak. Besterik gabe, sei sail horiek ongi nabarmentzen dute aldizkariaren ugaria, gaien aldetik eta irakurlegoaren aldetik: irakurgai errazak eta arinak, editorial mamitsuak, erlijiozko eta fedezko arazoak, kulturako eta hizkuntzako eztabaida gaiak, poesia eta bertsoak; eta tartean, hainbat puntu harrotzeko eta norberearen eritzia emateko leku librea.

Irakurle-mota oso ezberdinei zuzendua zegoen eta dago nonbait KARMEL aldizkaria. Fededunak, gure Herriko arazo politiko eta kulturazkoek kezkatuak, literatura zaleak, etab.ek beren txokoa aurkitu izan dute, zalantzarik gabe, aldizkarian. Hala ere, bere ugaritasun eta guzti, bi ardatz nagusi hauen bidetik ibili dela esango nuke KARMEL: kristau fedea eta euskara; biak agian Euskal Herriaren ardatz gisa. Eragozpen eta zailtasun guztien artean, euskeraren erabilera oparoari eutsi izana ez da meritu makala; bestalde, kristau fedezko gogoeta euskal gizarregintzaren, herrigintzaren eta kultur-gintzaren barru-barruan kokatu eta bideratu eta mamitu izanak bere batasun ideala eta sakona ere eman dio seguruenik aldizkariaren asmoari eta egiturari.

Hala ere, batzutan ezin alde egin izan diot, aldizkaria bere osoan ikusirik, nere ustez kaltegarri duen nahas-itxuraren minari; 1983-1 zenbakiari begiratuz, esate baterako, elkarrekin ezkontezinak-edo ikusi izan ditut, Bixente Latiegiren «Erdi-Aroko euskararen idazkera» filologiazko lana, eta horren ondoan Teresa Doneari kanta. Horregatik batzutan hibridoaren itxura hartu izan du KARMEL aldizkariak. Jakina ez duela izan nahi saski-naskiren bat, non edonolako jakingarri, irakurgarri eta bitxikeria kabitzen bait da bata bestearen ondoan.

Bestalde, ez daukat ezkatutu beharrik, aztertzen ari naizen lehen hiru «zenbakietako» publizitatearen aurkezpena ez zaidala batere atsegin izan, eta desegokia iruditzen zaidala KARMEL bezalako aldizkarian. Zoritxarrez, honelako aldizkariak ere ez dauka publizitateari uko egiterik, baina aurkibidea edota editoriala bera publizitateko orrialde osoen tartean ogibitartekoak bezala ipintzea, itsusia izateaz gainera, arinkeria handiegia iruditzen izan zait. Neure iritzi apala besterik ez duzu hori; eta seguruenik bere arrazoiak zituen aldizkariaren zuzendariak. Hala ere, KARMEL bezalako aldizkarian garrantzi handi-handia duela uste dut publizitatearen aurkezpenak. Nabarmenegia gertatzen baldin bada, irakurlearentzat nahasgarria eta berorren interesaren sakabanatzailea gerta daiteke.

170. zenbakia (1984, 1-2) zubi gisako zenbakia dirudieka esan dut lehen. Eta nahiz eta aurreko zenbaki baten azala errepikatu, benetan «saski-naski» bat da zenbaki hau. Horren arrazoiak argi eta garbi ematen ez badira ere, nolabait iradokita daudela uste dut bigarren orrialdeko oharrean. Ez du garrantzi handirik, eta irakurleak eta harpidedunak gehienetan ongi jakin ohi du edonolako aldizkariaren horrelako larrialditxoak barkatzen. KARMEL aldizkariari buruzko eritzia ematean ez du horrek garrantzirik, zera nabarmentzeko ez baldin bada: hots, nolako nekeak dituen euskarazko edozein aldizkariak eta areago KARMEL bezalakoak bere bidetara tinko eusteko. Denok dakigu negozio kaxkarra dagoela horrelako lanbidean. Zubitzat hartzen dugu zenbaki hori: zuzendaritzaren aldaketa gertatzen delako ere bai, nahi izanez gero. Baina hemengo lerro hauek idaztean eta geure eritzia lantzean, ondoko zenbakien aldera igarotzeko bidea ematen digu aipaturiko zenbakiak. Horien inguruan joango da batez ere gure ondorengo eritzi-ematea.

Ohar argi bat egin behar dut aurrera jo baino lehen: Ez ditudala inola ere elkarren aurrez aurre edo aurka ipini nahi «zubiaren» bi aldetako zenbakiak. Besteren artean, benetan uste dudalako azken bi urteotako KARMELek bere historiako bidetara eutsi diola funtsean, eta batasun eta kidetasun handia dagoela azken zenbakion eta aurrekoen artean. Dena dela, aldaketa batzu ere egin ditu: horietako batzutan behintzat onerako, nere ustez. Baina noan neure ohar kritiko batzu jostera.

Hasteko, 171. zenbakitik, (1984, 3-4)tik, hasita ondorengo guztietan gorde den aldizkariaren egiturari eta sailen loturari begiratu nahi diot. Nere ustez ez du garrantzi txikia aldizkariaren alderdi formal horrek; eta uste dudanez, dexente irabazi du KARMELek egitura berriarekin: editorialarekin hasiera emanez, «Kontu-kontari» saila atzera eramanez eta «Eritziak» sailari ere bere leku logikoagoa emanez. «Kultura» eta «Gizartea» sailak bereizteak baditu bere lanak honelako aldizkarian; baina iruditzen zaidanaz, gure Herri-

ko hainbat arazo politiko eta soziali beren garrantzia emateko egokia izan daiteke «Gizartea» bezalako saila. Bi sail nagusi horien ondoan -ondoren edo barruan: nahi duzuen bezala- bere lekua gorde du «Eliza» sailak, lehen aipaturiko aldizkariaren ardatzetako bati eutsi nahiez, seguruenik. Argitu eta borobildu egin da, nere ustez, aldizkariaren egitura eta aurkezpen formala, aspalditiko bere formula arin eta ugaritsuari uko egin gabe.

Bestalde, ez dakit zuzendariaren edo administratzailearen pozerako izango den, baina irakurleak behintzat eskertu egiten dau azken zerbakiak jorkabidea publikizateari dagokionez. Gutxitu egin dira, bistan da, publikizate-orriak; baina batez ere tarteko orri mingarri haiek kendu egin dira, aldizkariari gorputz trinkoagoaren itxura eta batasun handiagoren aurpegia emanaz.

Dena dela, KARMEL aldizkariaren formularako oraingo formatoa egokiena ez ote den nago neure barrurako; eta neure barrurako eritzi edo susmo hori daukadanez, aukera honetaz baliatzen naiz kanpora ere botatzeko. Formato handia beharko lukeela uste dut, aldizkari «modernoago» baten itxura eta kutsua emateko. «El Ciervo»ren antzekoa agian? Erakargarriagoa eta irakurgarriagoa izango litzatekeela esango neuke. Eta bizitasun handiago lortzeko aukera emango lioke gainera maketistari. Badakit ez dela erraza urtetako aldizkariaren azaleko itxura eta irudia aldatzea; baina, ausarta izanik eta guzti, hor jaulkitzen dut neure eritzia. Beharbada, orain dela urte t'erdi, aldizkariaren egitura formala eta sailkapena aldatzean zegoen aukerarik onena, formatoa bera ere aldatzeko.

«El Ciervo» aldizkaria aipatu dut eredutzat edo, baina horrelako beste hainbat daukat gogoan; agian txikiagoak ere bai. Edonork ditu horrelako hainbat ikusi eta eduki esku artean. Horrelakoak etorri zaizkit burura, besteren artean, beharbada aldizkariaren azalaren trataera ere askozaz arinagoa dutelako. Izan ere, KARMELen azken zerbaki guztietako azalak ikusiz, neure susmoa dut, edota neke handia duela zuzendariak edo maketistak zerbaki bakoitzerako azal egokia egiten edo aukeratzen, edota ez duela ahalegin handirik egiten azalaren bidez mezu argirik emateko. Badakit, jakin, hain formato txikian ez dela batere erraza, azal erakargarriak eta argiak egitea, ezberdina zerbaki bakoitzerako; baina, nere ustez, azken aldiko azalak, itsusiak izateaz gain, sarritan ilunak direla uste dut eroslearentzako eta harpidedunarentzako, mezuaren aldetik. Baina horretan ere erlatiboturik utzi nahi dut neure iradokizuna.

Utzi dezadan aldizkariaren alderdi formala. Zerbait erantsi nahi nuke horren mamiari buruz ere. Aldizkariaren bi ardatzak aipatu ditut lehen. Eta azken zazpi zerbakiei begiratzen badiegu, oso nabarmen da bi ardatz horiek aldizkariko gai erabilienak ere bihurtu direla. Erlijiozkoarena eta euskararena

dira bi gaiok. Bi horiekin batera, seguruenik literatura eta literatur kritika nagusitzen da: ez bakarrik literaturaren sail berezi bat daukalako bakarrik, eta bai literaturaren inguruan beste hainbat artikulua ere argitaratzen direlako.

Erliziozkoaren alorrean giro aski atzeratua -agian atzerakoa- nabari dut, bai erabiltzen diren gaien aldetik, bai ta erabiltzeko moduaren aldetik. Azken zazpi zenbakiotan bost aldiz behintzat -bost artikulutan- hagiografiari hel-tzen zaio, beste hainbat santuaren berri emanaz. Santuak ez dira noski aspal-diko kontua kristautasunaren historian; baina esan behar da, ez direla gaurko gairik biziena ere, Euskal Herriari zuzenduriko aldizkarian.

Badira, hala ere, beste gai batzuk, gaurko gure gizartean eta kristuaren bizitzan gori-goriak direnak, eta aldizkarian beren lekua daukatenak: «Bizkai-ko Jainko Erriaren Batzar nagusia», «Bizia eta Kristaua. Hazi txiki miresga-rria», «Eleizea eta beartsuak». Dena dela, kristau gaiok igandero elizara eta mezatara doazenei zuzenduak daudela dirudite. Iruditzen zaidanez, erlijioz-koaren ikuspegia eta erabilera zabaldu, bizitu eta gaurkotu beharra dauka gaurko euskal gizarteari erantzun nahi dion aldizkariak. Ala kristau prakti-kanteak bakarrik ditu bere irakurleak? Hala ere, kristau mezua gaurkotu be-harrean dago.

Euskal Herriaren arazo politikoak, sozialak eta kulturazkoak dira nagusi aldizkariaren aurkibideetan: eta horien artean, *euskara*. Azken zazpi zenbakio-tan, Bixente Latiegiren sei artikulua kontatu gabe ere, hamairu aldiz be-hintzat euskararen gaia erabili da. Aldizkaria egiten dutenen eta irakurleen kezka nagusienetakoa dela adierazten du seguruenik horrek. Azken batez, aldizkariak Euskal Herriaren egoera nola bizi duen agertzen da hor. Alde hor-retatik, ados nago ni, Herri honek bizi duen arazorik negusienetako bat euskararena duela: euskararen aldeko erresistentziak eta horren berreskura-penaren aldeko ahaleginak etengabea izan behar du. Horretarako jakina, oi-narrizkoena aldizkaria bera euskaraz ateratzea da, eta horri urtetan tinko eus-tea. Berrito ere txalo handiak merezi ditu KARMELek.

Barriro «baina» bat erantsi nahi dut, ordea. Euskararen etsaien kontrako erresistentziari eta euskararen zabaltzeari baino gehiago, euskararen barruko polemikei eta eztabaidei kontu handiagoa egiten ote die aldizkariak. Lehen begiratuan, horrelakoaren bat sumatzen da. Astiroago begiraturaz, egia da idazlan «positibo» ugari dagoela. Baina, nere ustez, euskaldunon artean gain-diturik beharko luketen eta, nere eritziz, benetan gainditurik dauden ezta-baidei leku handiegia ematen zaie aldizkarian: ia itolarria zortzeraino. Aldiz-karia irakurri duenak ondo ulertua du zer adierazi nahi duan: Euskara ba-tuaren eta bizkaieraren edo euskalkien arteko «aizia». Arazo linguistiko, kul-turazko eta soziala dela ukatu gabe, funts-funtsean pedagogikoa dela uste dut

nik: eta hori bideratuz joan beharrean gara etengabe. Baina euskara batuaren -euskararen- printzipio nagusi batzuk onartuak eta erabakiak beharko lituzke aldizkariak. Horien gain eztabaida daitezke gure hizkuntzari buruzko arazo guztiak: orduan bai, lasai eta baketsu.

«Salaketa» hori agertzeko, aldizkariaren editorialetara jo beharrean naiz; izan ere, euskarari buruz aldizkariak onartua duen eklektizismo hori, editorialetan beraietan agertzen bait da. Nere ustez, argia eta garbia beharko luke izan horri buruz aldizkariaren joera editorialak, gero lankideen eta idazleen arteko jokabide eta eritzi ezberdinak onartuko badira ere, eta horiei lekua eman aldizkariko orrietan.

Azken hiru urteotako zenbakietako editorialak ikustea aski da, konturatzeko inola ere argitu gabeko arazo duela hori KARMELeK. Areago, urte honetako bi zenbakietan nabarmentzen da erabat, kontradikzio gisa: gori-gori dagoen kontradikzioa. 172. zenbakiko editorialean defenditzen den «Erri-bidea» eta 173. zenbakiko editorialean erabiltzen den euskara batua -«euskara»- ez daude elkarren kontra neure ustez; baina badirudi, aldizkariak berak -zuzendariak, kontseilariak eta laguntzaileek- kontradikzio gisa hartzen dutela, eta ez dutela korapilo hori askatzeko arrazoirik edo indarrik. Nerezat, ordea, arrazoi handiak daude aldizkariak horretan bide argia aukeratu eta finkatu dezan. Beste zenbait editorialetan, Madrilgo gobernuaren Euskal Herriarekiko politika orokorraren eta bereziki politika errepresiboaren kontra edota Euskal Herriarentzako euskararen aldeko jokabide argi eta garbia agertzen badu, antzeko jarrera eskatuko nuke Herri honek behar duen -duen- euskara batuari -euskarari- buruz ere. Barkatuko dizkirate aldizkaria egiten dutenak nere hitz garratz xamar hauek; baina neure eritzia eman beharrean nintzen. Argi eta garbi.

Eklektikotzat jotzen hasi naiz aldizkaria, eta kontradiktoretzat joaz amaitu dut. Baina puntu horretako kontradikzioa okertzat eta kaltegarritzat jotzen dudan bitartean, aldizkariak pentsakeraren mailan, euskararen arabileran edota gaien desberdintasunean irekitzen duen bide eklektikoa ez nuke, besterik gabe, okerreko aldera botako. Bere balioa duela uste dut. Aukera bat da; eta agian ez errazena. Bestade, oinarri eta ardatz tinkoak ditu aldizkariak, bere bidea eta helburua markatuz joateko.

Beharbada oso barrutik egin dut aldizkariaren nere eritzia ematea: agian ez zegokidan horrelakorik, eta ez zen hori adiskideek eskatu zidatena. Horrelako azterketa eta kritika egitea seguruenik aldizkariaren beraren idazle-kontseiluari dagokio, eta ez aldizkaria nolabait kanpotik eta irakurle gisa ikusten duenari. Baina badut usteonik, ez direla mingarri eta kaltegarri behintzat izango zorriborratu ditudan lerro horiek.

Gogoeta txikitxo bat erantsi nahi dut, beharbada neure artikulua ren muina izan behar zuena: hau da, KARMELen lekua eta eginkizuna gaurko euskal aldizkarien artean.

Euskaraz idatzita egoteagatik, besterik gabe, merezi ote du bititza gure artean aldizkari batek? Ni ez naiz eritzi horretakoa. Euskaraz idatzia egoteaz gain, beste baliorik behar duela uste dut. Horregatik, KARMELen lekuaz eta eginkizunaz dudan eritzia ez dago bakarrik, euskerazkoa izatearen liluraren gain eraikia.

Gaur hainbat motatako aldizkariak dauzkagu Euskal Herrian, euskerazkoak ere bai: azken hauek benetan gutxi badira ere, izatez, eta hutsuneak ikaragarriak baldin badira ere. Euskal aldizkaria berriemaile orokorren, bestelako aldizkari monografiko edota oso espezifikoaren, euskal literatur aldizkariaren artean, KARMELek bere plaza du noski. Hiru aldizkari-mota horien sintesi moduko bat egin nahi duela iruditzen zait: Albieste-aldizkaria da, eritzi-aldizkaria da, eta gai sakonen zabalkundea edo dibulgazioa ere egiten du; eta horietaz gain, literatur sorkuntzari eragiten dio. Zalantzarik gabe, irakurle gozabalek batentzat aldizkari mota interesgarria izan daiteke, gaurkotasanari helduz, etengabe berrituz joaten baldin badaki.

Azkenik, euskal herrigintzan eta kulturgintzan erlijiozko gaia eta kristautasunaren mezua era esplizitoan integratzeak bere ezaugarria eta berezitasuna ematen dio aldizkariari. Ez dakit legez zein motatako aldizkaria den; baina egitatez, kultur eta erlijio-aldizkaritzat jo behar dela uste dut. Gaurko euskal gizarteak beharrezkoa du bere herri, kultur eta hizkuntz borrokan erlijiozkoa argi eta garbi ipintzea. Hala uste dut.

*Paulo Agirrebaltzategi*